

# MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ALDEKO ZERGA- PIZGARRIAK

## EUSKADIKO UDALERRIETAN

2020ko Ekaina

## 1. ABALTZISKETA

### TMIZ

---

Ibilgailu elektrikoak, kuotaren **%75eko hobaria** eta hibridoek, kuotaren % 50eko hobaria izango dute.

## 2. ABANTO-ZIERBENA

### TMIZ

---

#### 4. artikulua

Zergaren kuotaren **100eko 95eko** hobaria izango dute lehenengo lau urteetan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita, erabat **elektrikoak** diren ibilgailuek eta eguzki-energia bidez soilik ibiltzen diren ibilgailuek.

## 3. ADUNA

### TMIZ

---

2. Ibilgailu hibridoek %30eko hobaria izango dute zerga kuotan matrikulatu eta ondorengo 5 urteetan eta seigarren urtetik Aurrera, hobaria %10ekoa izango da.

3. Motor elektrokidun ibilgailuek %70eko hobaria izango dute matrikulatu eta ondorengo 5 urteetan eta 6.urtetik Aurrera hobaria %25ekoa izango da.

## 4. AGURAIN/SALVATIERRA

### TMIZ

---

Propulsioko motor elektrikoak soilik duten ibilgailuak % **25eko hobaria** izango dute zerga kuotan.

## 5. ALEGIA

### TMIZ

---

Propulsioko motor elektrikoa soilik duten ibilgailuak % **50eko hobaria** izango dute zerga kuotan.

## 6. AMEZKETA

### TMIZ

---

«A) Fabrikako homologazioaren arabera, erregai gisa gasa erabil tzen duten ibilgailuak badira eta isurpen kutsagarriak gutxitzeko, bere mota eta modeloentzat egokiak diren tresna katalizatzaileez hornituak badaude: %40ko hobaria.

B) Fabrikako homologazioaren arabera, ibilgailu hibridoak badira (elektriko-gasolina, elektriko diesel edo elektriko-gasa motorrak) eta isurpen kutsagarriak gutxitzeko, bere mota eta modeloentzat egokiak diren tresna katalizatzaileez hornituak badaude: % 40ko hobaria.

C) Isurpen gabeak edota, motor elektrikoa duten ibilgailuak badira: % 40ko hobaria.

Hobari hauek 5 urteko iraupena izango dute hobaria jasotzen den lehen urtetik hasita.»

## 7. AMOREBIETA-ETXANO

### TMIZ

---

#### 4. artikulua

b.1.) **Motor elektrikoa** duten eta/edo ezer isurtzen ez duten ibilgailuek % **75eko** hobaria izango dute zergaren kuotan denbora mugagabeen.

b.2.) Motor hibridoa duten ibilgailuek eta erregai gisa gasa (gas naturala, petrolioaren gas likidotuak edo bioetanola) erabiltzen dutenek % 75eko hobaria izango dute zergaren kuotan lau ekitalditan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

## 8. AMURRIO

### TMIZ

---

#### 7 artikulua

Turismo, kamioi, furgoi, furgoneta, ibilgailu misto moldagarri, autobus eta autokar klaseetako ibilgailu automobilek motorren ezaugarrien, ibilgailuak erretzen duen erregai motaren eta errekontzak ingurumenean duen eraginaren arabera hobari bat izango dute zergaren kuotan, betiere baldintza eta betekizun hauetakoren bat betetzen badute:

a) Fabrikatik homologatuta dauden ibilgailu hibridoak izatea (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

b) Erregai malguko ibilgailuak izatea (flexi-fuel ibilgailuak – FFV); hau da, E85 (ehuneko 85 bioetanol eta ehuneko 15 gasolina) izeneko nahasketaren bidez ibiltzeko prestatuta dauden ibilgailuak, fabrikatik bertatik homologatuta ateratakoak.

a) eta b) kasuetan, ibilgailuek zergaren kuotaren ehuneko 50eko hoberia izango dute lau urte naturaletan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

c) Gasolina edo diesel motorra duten ibilgailu berriak izatea. Ibilgailu horien markak eta modeloak energia aldetik eraginkorrenen artean hartzen direnetan egon beharko du; hau da, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuaren arabera, A mailako energia-eraginkortasuna izan beharko dute, abuztuaren 2ko 837/2002 Errege Dekretuak xedatutakoaren ildotik. Errege Dekretu horrek arautzen du Espainian salmentan jarri edo finantza-errentamenduan ematen diren ibilgailuek kontsumitzen duten erregaiari eta isurtzen duten CO<sub>2</sub>-ari buruzko informazioa.

Ibilgailu horiek zergaren kuotaren ehuneko 25eko hoberia izango dute bi urte naturaletan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

d) **Motor elektrikoko ibilgailuak** eta/edo ezer isurtzen ez dutenak izatea.

Ibilgailu horiek **ehuneko 50eko hoberia izango dute kuotan**.

## 9. ANDOAIN

TMIZ

---

### VI. kapitulua

**Ibilgailu elektrikoek % 50eko hoberia** izango dute.

## 10. AREATZA

TMIZ

---

**Ibilgailu elektrikoek % 75eko hoberia** izango dute.

## 11. ARETXABALETA

### TMIZ

---

6. artikulua.

1. %50eko hoberia aplikatuko zaie ibilgailu hibridoiei eta % 90 elektrikoei, ibilgailuaren potentziaren eta motaren arabera dagokion zenbatekoan.

## 12. ARRASATE-MONDRAGÓN

### TMIZ

---

Tributu-kuotaren **% 75eko hoberia** izango dute faktoriatik bertatik homologatuta iristen diren motor **elektrikoko** ibilgailuek.

Tributu-kuotaren % 50eko hoberia izango dute motor hibridoa duten ibilgailuek (energia elektriko eta gasolinarekin, energia elektriko eta dieselarekin edo energia elektriko eta gasarekin). Faktoriatik bertatik homologatuta etorri beharko dute.

## 13. ARRIETA

### TMIZ

---

Ibilgailu elektrikoentzako %75eko hoberia ezarri da.

Entxufa daitezkeen ibilgailu hibridoentzako %50eko hoberia ezarri da zerga kuotan.

## 14. ARRIGORRIAGA

### TMIZ

---

#### 6.2 artikulua

Zergaren kuotaren % 25eko hoberia izango dute kilometro bakoitzeko gehienez ere 104 gramo karbono dioxido (CO<sub>2</sub>) isurtzen dituzten ibilgailuek. Hobari hori 4 urteko gehieneko epean aplikatuko da ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

Zergaren kuotaren % **50eko hobaria** izango dute lehenengo 4 urteetan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita, ibilgailu bimodalek edo hibridoek, baita erregai gisa petrolioaren gas likidotuak (PGL) erabiltzen dituzten ibilgailuek ere. Hobari hori edukitzeko, interesdunek eskatu egin beharko dute hobari hori ematea; horretarako, eskaerarekin batera Ibilgailuen Azterketa Teknikoko Txartela aurkeztu beharko dute.

## 15. ASTEASU

### TMIZ

---

- Ibilgailu elektrikoek % 50eko hobaria izango dute zerga kuotan.
- % 25a hobaria izango dute kotxe hibridoek ondorengo baldintzekin, zeinak agiri bidez egiaztatu beharko diren:

\* Hibridoa izatea (Argindarrarekin eta gasolinarekin, argindarrarekin eta dieselarekin edo argindarrarekin eta gasarekin ibiltzen duena), etxetik bertatik homologatuta datorrena, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituena.

\* Etxetik dakarren homologazioaren arabera, gasa erretzen duen ibilgailua izatea, ibilgailu mota bakoitzari dagokion katalizatze sistema dakarrena eta emisio kutsakorrak ahalik eta gehien murrizten dituena.

## 16. ASTIGARRAGA

### TMIZ

---

Tributu-kuotaren **100eko 75eko hobaria** izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

a) Fabrikatik homologatuta dauden **motor elektriko ibilgailuak** edo ibilgailu hibridoak izatea (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

b) Fabrikako homologazioaren arabera, erregai gisa gasa erabiltzen duten eta emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituzten ibilgailuak izatea. Hobari horrek erreguzko izaera du, eta behin eskaera onartzen denean, ondorioak izango ditu hiru ekitalditan ibilgailua matrikulatu zen egunetik hasita edo ibilgailuaren motorra aldatu edo egokitu zen egunetik hasita.

## 17. AZKOITIA

### IVTM

---

#### 6. Artikulua

6.1. %70eko hobaria ezartzen da motor elektrikoa duten ibilgailuen kasuan eta %50eko hobaria motor hibridoa duten ibilgailuak.

## 18. AZPEITIA

### IVTM

---

#### 6. Artikulua

3. Ibilgailu elektriko edo hibridoak:

3.1. Ibilgailu elektrikoak: %90eko hobaria.

3.2. Ibilgailu hibridoak: %50eko hobaria.

Hobari hau eskaera egin eta 4 urtez izango dute.

## 19. BAKIO

### TMIZ

---

#### 4. artikulua

a´) **Motor elektrikoko** ibilgailuek % **60ko** hobaria izango dute zergaren kuotan, eta ezer isurtzen ez duten ibilgailuek % 60ko hobaria izango dute zergaren kuotan.

b´) Motor hibridoa duten ibilgailuek eta erregai gisa gasa (gas naturala, petrolioaren gas likidotuak edo bioetanola) erabiltzen dutenek % 60ko hobaria izango dute zergaren kuotan.

## 20. BALMASEDA

### TMIZ

---

#### 4.5 artikulua

Ibilgailu elektrikoek %90eko hobaria izango dute zerga kuotan eta ibilgailu hibridoek %45ekoa. Hobariok izateko ibilgailu elektriko edo hibridoa dela ziurtatzeko agiriak

aurkeztu beharko dira. Hobariak eskaria onartu eta ondorengo ekitaldian izango dute efektua.

## 21. BARAKALDO

### Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

---

#### 2. artikulua:

Udal-kuotaren bitartez zergak ordaintzen dituzten eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek dagokion kuotaren % 25eko hobaria edukitzeko eskubidea izango dute lehenengo bi urteetan. Baldintzak hauek dira:

c) Garraio-plan bat ezartzea beren langileentzat. Plan horren helburua energia-kontsumoa eta lanpostua dagoen lekura egindako joan-etorriek eragindako emisioak murriztea eta garraio-bide eraginkorrenen erabilera (garraio kolektiboa edo partekatua, adibidez) sustatzea da.

#### TMIZ

---

#### 6. artikulua:

Hobari hauek ezarri dira:

b) Zergaren kuotaren % 25eko hobaria izango dute kilometro bakoitzeko 120 gramo karbono dioxido (CO<sub>2</sub>) baino gutxiago isurtzen dituzten ibilgailuek. Hobari hori 4 urteko gehieneko epean aplikatuko da ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

c) Zergaren kuotaren **% 75eko hobaria** izango dute lehenengo 5 urteetan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita, **erabat elektrikoak diren ibilgailuek** eta eguzki-energia bidez soilik ibiltzen diren ibilgailuek.

c) Zergaren kuotaren % 60ko hobaria izango dute lehenengo 5 urteetan, lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita, ibilgailu bimodalek edo hibridoek, baita erregai gisa petrolioaren gas likidotuak (PGL) erabiltzen dituzten ibilgailuek ere. Hobari horiek aplikatzeko, interesdunek eskatu egin beharko dute hobari hori ematea; horretarako, eskaerarekin batera Ibilgailuen Azterketa Teknikoko Txartela aurkeztu beharko dute.

## 22. BARRUNDIA

#### TMIZ

---

#### 4.4.c artikulua



Zergaren kuota osoaren **ehuneko 75eko hobaria** ezarri da fabrikatik homologatuta dauden ibilgailu hibridoaren titularren alde (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

## 23. BASAURI

### TMIZ

---

#### 6. artikulua

Hobari hauek aplikatuko dira:

- a) Dagokion kuotaren % 50 propulzio hibridoko ibilgailuei.
- b) **Aplikagarria den kuotaren % 95 ibilgailu elektrikoek.**

Hobari horrek erreguzko izaera du.

## 24. BEDIA

### TMIZ

---

**Motor elektrikoa** duten eta/edo ezer isurtzen ez duten **ibilgailuek % 75eko** hobaria izango dute zergaren kuotan **5 urtetan**.

Motor hibridoa duten ibilgailuek % 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan 5 urtetan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

## 25. BERANGO

### TMIZ

---

#### 4.7 artikulua

Zergaren kuotaren % **75eko** hobaria izango dute lehenengo bost urteetan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita, **erabat elektrikoak** diren ibilgailuek eta eguzki-energia bidez soilik ibiltzen diren ibilgailuek.

## 26. BERMEO

### TMIZ

---

---

b) **Kuotaren %75eko hobaria** eukiko dabe motor elektrikoko edota isuri bako ibilgailuak.

c) Kuotaren %35eko hobaria motor hibridoa daukien ibilgailuak edo erragaitzat gas naturala edo petroliotik likidotutako gasak erabiltzen dabezan ibilgailuak matrikulatzen direnetik lau urtetan.

## 27. BERRIZ

### TMIZ

---

#### 4. artikulua

Kuotaren % **75eko hobaria** energia hauen bitartez soilik ibiltzen diren ibilgailuei.

- Energia elektriko bidez ibiltzen diren ibilgailuak.
- Eguzki-energia bidez ibiltzen diren ibilgailuak.
- Kutsagarriak ez diren energia alternatiboen bidez ibiltzen diren bestelako ibilgailuak.

Kuotaren % 50eko hobaria arestian aipatutako energien bidez, baina ez soilik energia horien bidez, ibiltzen diren ibilgailuei (ibilgailu hibridoak).

## 28. BILBO

### TMIZ

---

#### 8.4 artikulua

4. Gutxien kutsatzen duten ibilgailuek hobari bat izango dute zergaren kuotan, beren ezaugarrien arabera dagokien portzentajea eta epean, betiere honako paragrafo hauetako batean ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

A) Motor elektrikoko ibilgailuek %95eko hobaria izango dute zergaren kuotan, eta emisio nuluko ibilgailuek %75eko hobaria izango dute zergaren kuotan, bi kasuetan mugagabea.

B) Ibilgailu motordun hibridoek eta gasa erregai gisa, gas natural gisa, petrolio-gas likidotuetan edo bioetanoletan erabiltzen dutenek %75eko hobaria izango dute zergaren kuotan, bost ekitalditan zehar, lehenengo matrikulazioaren egunetik zenbatzen hasita.

C) 110g CO<sub>2</sub>/km-tik beherako emisio kutsatzaileak dituzten matrikulazio berriko turismoek %50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, lehenengo matrikulazioaren egunetik zenbatzen hasita, bost ekitalditan.

D) 110g CO<sub>2</sub>/km-tik 120g CO<sub>2</sub>/km-ra bitarteko emisio kutsatzaileak dituzten matrikulazio berriko turismoek %25eko hobaria izango dute zergaren kuotan, bost ekitalditan, lehen matrikulazioaren egunetik zenbatzen hasita.

Hobari hori erregutua da, eta ibilgailuak ezaugarri teknikoen txartelaren bidez eskatutako ezaugarriak dituela egiaztatu beharko da, edo, txartelean agertzen ez badira, administrazio eskudunak emandako agiri baten bidez.

Hobari horrek ibilgailuaren matrikulazioari dagokion zergaldian izango ditu ondorioak, baldin eta eskaera zergaren autolikidazioa egitean aurkezten bada, eta eskaera ibilgailua matrikulatu ondoren aurkezten bada, onartu eta hurrengo aldia izango ditu ondorioak.

Hobari hori ez da bateragarria izango ibilgailu berarentzako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren beste ezein onura fiskalekin.

## 29. CAMPEZO/KANPEZU

### TMIZ

4. Zergaren kuotaren ehuneko berrogeita hamarreko hobaria ezartzen da hibrido edo elektriko kalifikazioa duten ibilgailuentzat. Ezaugarri hori ibilgailuaren zirkulazio-txartelean edo -fitxan agertu beharko da.

---

Hobari hori arautua da, eta automatikoki aplikatuko da aurreko baldintza betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten den unean. Ekitaldi berean izango ditu ondorioak, eta, hala badagokio, hiruhileko natural osoen arabera hainbanatuko da.

## 30. DERIO

### TMIZ

---

#### 4.3 artikulua

**Zergaren kuotaren % 75eko** hobaria izango dute **erabat elektrikoak diren ibilgailuek** eta eguzki-energia bidez soilik ibiltzen diren ibilgailuek.

---

1.4. Zergaren kuotaren % 60ko hoberia izango dute ibilgailu bimodalek edo hibridoek (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa).

## 31. DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

### TMIZ

---

#### 10. artikulua

Tributu-kuotaren **100eko 75eko hoberia** izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

- a) Fabrikatik homologatuta dauden **motor elektrikoko ibilgailuak** edo ibilgailu hibridoak izatea (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.
- b) Fabrikako homologazioaren arabera, erregai gisa gasa erabiltzen duten eta emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituzten ibilgailuak izatea.

Hobari horrek erreguzko izaera du, eta behin eskaera onartzen denean, ondorioak izango ditu hiru ekitalditan ibilgailua matrikulatu den egunetik hasita.

## 32. DURANGO

### Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

---

#### 13. artikulua

d) Dagokion kuotaren % 30eko hoberia udal-kuotaren bitartez zergak ordaintzen dituzten eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboentzat. Baldintzak hauek dira:

- Garraio-plan bat ezartzea beren langileentzat. Plan horren helburua energia-konsumoa eta lanpostua dagoen lekura egindako joan-etorriek eragindako emisioak murriztea eta garraio eraginkorrenen erabilera (garraio kolektiboa edo partekatua, adibidez) sustatzea da.

### TMIZ

---

#### 7. artikulua

Hobari hauek aplikatuko dira:

a) **Kuotaren % 95eko hobaria ibilgailu elektriko**.

b) Kuotaren % 75eko hobaria propulsioko metodo hibrido, hau da, energia elektrikoa eta erregaia nahasten dituen metodoa, erabiltzen duten ibilgailuei.

c) Zergaren % 25eko hobaria izango dute kilometro bakoitzeko 120 gramo karbono dioxido (CO<sub>2</sub>) baino gutxiago isurtzen duten ibilgailuek, eta zergaren kuotaren % 40ko hobaria kilometro bakoitzeko 110 gramo karbono dioxido (CO<sub>2</sub>) baino gutxiago isurtzen duten ibilgailuek. Hobari hori 2 urteko gehieneko epean aplikatuko da ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

## 33. EIBAR

### TMIZ

---

Tributu-kuotaren **% 75eko hobaria** izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

Fabrikatik homologatuta dauden **motor elektrikoko ibilgailuak** edo ibilgailu hibridoak izatea (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

Fabrikako homologazioaren arabera, erregai gisa gasa erabiltzen duten eta emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituzten ibilgailuak izatea.

Hobaria lortzeko eskaerak Udalaren PEGORA bulegoetan aurkeztu beharko dira ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopiarekin batera.

## 34. ELGETA

### TMIZ

---

Ibilgailuek tributu-kuotaren **% 75eko hobaria** izango dute, baldin eta ibilgailuen motorren ezaugarrien arabera, ez badute hidrokarburorik erabiltzen.

## 35. ELGOIBAR

### TMIZ

---

Kutsadura murriztuko ibilgailuentzako hobaria:

2.1.- **Ibilgailu elektrikoek % 95eko hobaria** izango dute. **Hobari horrek erreguzko izaera izango du ekitaldi bakoitzean.**

2.2.- % 75eko hobaria energia elektrikoa eta erregaia konbinatzen dituzten ibilgailuentzat.

2.3.- Zergaren kuotaren % 25eko hobaria kilometro bakoitzeko 120 gramo karbono dioxido (CO<sub>2</sub>) baino gutxiago isurtzen dituzten ibilgailuentzat.

Hobari hori 2 urteko gehieneko epean aplikatuko da ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

## 36. ELORRIO

### TMIZ

---

Gutxien kutsatzen duten ibilgailuek hobari bat izango dute zergaren kuotan, beren ezaugarrien arabera dagokien portzentajearen eta epean, baldin eta atal hauetakoren batean ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

D) Motor elektrikoko ibilgailuek %95eko hobaria izango dute zergaren kuotan, eta emisio nuluko ibilgailuek, berriz, %75eko hobaria izango dute zergaren kuotan, bi kasuetan mugagabea.

E) Ibilgailu motordun hibridoek eta gasa erregai, gas natural, petrolio-gas likidotu edo bioetanol gisa erabiltzen dutenek %50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, lau ekitalditan zehar, lehenengo matrikulatzen direnetik zenbatzen hasita.

## 37. ERANDIO

### TMIZ

---

a) **Motor elektrikoa** duten eta/edo ezer isurtzen ez duten turismo-ibilgailuek **% 75eko** hobaria izango dute zergaren kuotan 5 urtetan.

b) Motor hibridoa duten turismo-ibilgailuek eta erregai gisa gasa (gas naturala, petrolioaren gas likidotuak edo bioetanol) erabiltzen dutenek % 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan 5 urtetan.

## 38. ERMUA

### TMIZ

---

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotan **% 75eko hoberia** izango dute **lehenengo 5 urteetan**, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita, **erabat elektrikoak diren ibilgailuek** eta eguzki-energia bidez soilik ibiltzen diren ibilgailuek.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotan % 60eko hoberia izango dute lehenengo 5 urteetan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita, ibilgailu hibridoek (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-gasolia, elektrikoa-gasa).

## 39. ERRETERIA

### Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

---

3.- Dagokion kuotaren % 25eko hoberia udal-kuotaren bitartez zergak ordaintzen dituzten eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboentzat. Baldintzak hauek dira:

2) Garraio-plan bat ezartzea beren langileentzat. Plan horren helburua energia-kontsumoa eta lanpostua dagoen lekura egindako joan-etorriek eragindako emisioak murriztea eta garraio-bide eraginkorrenen erabilera (garraio kolektiboa edo partekatua, adibidez) sustatzea da.

Hobari horiek erreguzko izaera dute eta eskaera egin ondorengo aldian jartzen dira indarrean.

### TMIZ

---

Hobariak:

a) **Motor elektrikoa duten ibilgailuek % 95eko hoberia** izango dute zerga-kuotan, lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita bost ekitalditan zehar.

b) Motor hibridoak dituzten ibilgailuek eta erregai gisa gasa erabiltzen dutenek, gas naturala, petroliotik likidotutako gasak zein bioetanola erabili, % 75eko hoberia izango dute zerga-kuotan, lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita bost ekitalditan zehar.

## 40. ESKORIATZA

### TMIZ

---

### 3.1.2.1 artikulua

Tributu-kuotaren % 75eko hoberia izango dute motor hibridoa duten ibilgailuek (energia elektriko eta gasolinarekin, energia elektriko eta dieselarekin edo energia elektriko eta gasarekin). Faktoriatik bertatik homologatuta etorri beharko dute. Zerga-hobariak 5 urteko muga du ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

Tributu-kuotaren % **95eko hoberia** izango dute faktoriatik bertatik homologatuta iristen diren motor elektrikoko ibilgailuek.

## 41. ETXEBARRI

### TMIZ

---

#### 4. artikulua

Zergaren kuotaren % 40ko hoberia izango dute fabrikatik homologatuta dauden ibilgailu hibridoek (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

Zergaren kuotaren % **80ko** hoberia **motor elektrikoa duten** eta/edo ezer isurtzen ez duten ibilgailuek.

## 42. FORUA

### TMIZ

---

H) Ibilgailu motordun hibridoek zergaren kuotaren% 25eko hoberia izango dute.

I) Ibilgailu elektriko motordunek zergaren kuotaren% 50eko hoberia izango dute.

## 43. GALDAKAO

### TMIZ

---

#### 4. artikulua

Hobariak kutsatzaileen emisioa txikia izategatik. Ibilgailu elektrikoek eta CO<sub>2</sub>-rik isurtzen ez duten ibilgailuek hobari hauek izango dituzte:



a) **Kuotaren 100eko 75eko hoberia motor elektrikoko ibilgailuek.**

b) Kuotaren 100eko 50eko hoberia CO<sub>2</sub>-rik isurtzen ez duten ibilgailuek.

Hobari hori lehenengo 5 urteetan aplikatuko da ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita, eta 15,99 zaldi-potentzia fiskal gainditzen ez dituzten ibilgailuei.

## 44. GAUTEGIZ ARTEAGA

### TMIZ

---

#### 4. artikulua

3. **% 75eko hoberia motor elektrikoko ibilgailuei** edo fabrikatik homologatuta dauden ibilgailu hibridoak (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean, baldin eta egungo legeriak baimentzen badu.

## 45. GERNIKA-LUMO

### TMIZ

---

c) Kuotaren % 25eko hoberia ibilgailu elektrikoak eta propulsioko metodo hibridoa, hau da, energia elektrikoa eta erregaia konbinatzen dituen metodoa erabiltzen duten ibilgailuei.

## 46. GETXO

### TMIZ

---

#### 4.2. artikulua

a) **% 75eko hoberia** jasoko dute **motor elektrikoa** duten ibilgailuek.

Interesdunek hoberia jasotzeko eskaera egin beharko dute; horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren kausa adierazi beharko dituzte. Udal Administrazioak hoberia ebatzen duenean, dokumentu bat egingo da, zeinetan hoberia ematen dela egiaztatuko den, eta eskaera egindako egunaren ondorengo ekitaldian izango ditu ondorioak.

## 47. GORDEXOLA

### TMIZ

---

2. % 50eko hobaria izango dute motor mistoak dituzten eta erregai fosilen kontsumo tradizionalaren bidez nahiz elektrizitatearen bidez ibiltzen diren motor mistoek. Motor elektrikoko ibilgailuen kasuan, **hobaria % 75ekoa izango da.**

## 48. GÜEÑES

### TMIZ

---

5. a) Zergaren kuotan ehuneko 80ko hobaria izango dute ziklomotorrek, trizikloek, kuadrizikloek eta motozikletek; turismoek; furgoneta arinek, 8 plaza baino gehiagoko ibilgailuek eta DGTren Ibilgailuen Erregistroan zero emisioko ibilgailu gisa sailkatutako salgaiak garraiatzeko ibilgailuek: bateria-ibilgailu elektrikoak (Bev), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (REEV), ibilgailu elektriko hidriak

B) Ehuneko 60ko hobaria izango dute Turismoek, furgoneta arinek, 8 plaza baino gehiagoko ibilgailuek eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuek, baldin eta DGTren Ibilgailuen Erregistroan eko-ibilgailu gisa sailkatuta badaude: 40 km-tik beherako autonomia duten hibrido entxufagarriak, ahokagarriak ez diren ibilgailu hibridoak (HEV), gas naturalez propulsatutako ibilgailuak (GNC eta GNL) edo petrolioaren gas likuatuz propulsatutakoak (GLP).

## 49. HERNANI

### TMIZ

---

6. Zerga kuotaren **%95eko hobaria** izango dute Motor elektrikoak duten ibilgailuek, etxetik bertatik homologatuta datorrena, betiere Ibilgailuen Araudi Orokorraren arabera “0 emisioko ibilgailua” edo “ECO ibilgailua” baldin bada.

Hobaria eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, hurrengo bost ekitaldietan balio du.

## 50. IDIAZABAL

### TMIZ

---

B.- Turismo, kamioi eta autobus klaseetako automobilerik, ondorengo ataletan ezartzen diren baldintzen arabera, zergaren kuotaren hobaria izango dute erabilitako erregai motaren, motorraren ezaugarrien eta ingurumenean duen eraginaren arabera, betiere ondoren zehaztuko diren baldintzak eta betekizunak betetzen badira:

a) Fabrikako homologazioaren arabera, erregai gisa gasa erabiltzen duten eta emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituzten ibilgailuak izatea: % 50.

b) Fabrikatik homologatuta dauden ibilgailu hibridoak izatea (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean: % 50.

c) **Motor elektrikoko ibilgailuak eta/edo ezer isurtzen ez dutenak izatea: % 95.**

## 51. ISPASTER

### TMIZ

---

Hobariak

J) Ibilgailu elektrikoaren kuotaren % 60ko hobaria.

K) Metodo bat erabiltzen duten ibilgailuen kuotaren % 30eko hobaria.

Propulsio-hibridoa, energia elektrikoa eta erregaia konbinatuz.

## 52. IURRETA

### TMIZ

---

Jarraian zerrendatutako ehunekoen hobaria izango dute zergaren kuota ekologiko gisa definitutako ibilgailuek.

Ibilgailu ekologikoa izango litzateke erregai-motaren edo ibilgailuen motorren arabera ingurumenean eragin negatiborik ez duena. Horretarako, honako hauek hartuko dira ibilgailu ekologikotzat:

A) Energia elektrikoak bultzatutako ibilgailuak

Ibilgailu elektrikoak (%75eko hobaria),

Propultsioko ibilgailu motordun hibridoak, energia elektrikoa eta erregaia konbinatuz (%50eko hobaria).

B) Eguzki-energiak bultzatutako ibilgailuak: % 75.

C) Gasez bultzatutako ibilgailuak: % 50.

D) Energia alternatibo ez-kutsatzaileekin funtzionatzen duten beste ibilgailu batzuk: % 50 "

## 53. IRUN

### Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

---

#### 7. artikulua

Dagokion kuotaren % 25eko hobaria udal-kuotaren bitartez zergak ordaintzen dituzten eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboentzat. Baldintzak hauek dira:

Garraio-plan bat ezartzea beren langileentzat. Plan horren helburua energia-kontsumoa eta lanpostua dagoen lekura egindako joan-etorriek eragindako emisioak murriztea eta garraibide eraginkorrenen erabilera (garraio kolektiboa edo partekatua, adibidez) sustatzea da.

#### TMIZ

---

#### 4. artikulua

b) Dagokion zergaren kuotaren **% 75aren** baliokidea **ibilgailu elektriko**ei.

c) Dagokion zergaren kuotaren % 50aren baliokidea motor elektriko bat edo batzuk barne-errekuntzako motor batekin konbinatzen dituzten eta fabrikatik homologatuta dauden motor hibridoko ibilgailuei, betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

## 54. LANTARON

#### TMIZ

---

Zergaren kuotaren **ehuneko 50eko hobaria** izango dute ziklomotorrek, trizikloek, kuadrizikloek eta motozikletek; DGTren ibilgailu-erregistroaren arabera, **ibilgailu elektriko** bateriadun (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektriko (AHIE), 40

kilometroko gutxieneko autonomia duen ibilgailu elektriko hibrido entxufagarri (IEHE) edo erregai-piladun ibilgailu gisa sailkatuta dauden turismoek, furgoneta arinek, 8 plazatik gorako ibilgailuek eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuek.

## 55. LASARTE-ORIA

### TMIZ

---

CO<sub>2</sub>-ren isurpen ofizialak kilometro bakoitzeko 120 gramotik gorakoak ez dituzten ibilgailuek, quad motako ibilgailuek izan ezik, honako ehuneko honetako hoberia izango dute kuota osoan:

- **Ibilgailu elektrikoek: % 70.**
- Ibilgailu hibridoek: % 40.
- Gainerako ibilgailuek: % 25.

Hobariak 5 urteko iraupena izango du, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita.

## 56. LARRABETZU

### TMIZ

---

#### 4. artikulua

**%75eko hoberia ibilgailu elektriko**ei, eta % 40koa ibilgailu hibridoei (elektrikoa eta erregaia).

## 57. LARRAUL

### TMIZ

---

#### 1.3. artikulua

**%95eko hoberia ibilgailu elektriko**ei.

## 58. LAUDIO/LLODIO

### TMIZ

---

#### 4. artikulua

6. Zergaren kuotaren % **75erainoko hobaria** izango dute lehenengo lau ekitaldietan, ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik hasita edo dagozkion sistemak jarri zitzaizkionetik hasita, kasuen arabera, ingurumenean eragin txikia duten motorrak dituzten edo ingurumenean eragin txikia duten errekontzako erregaiak erabiltzen dituzten trakzio mekanikoko ibilgailuek. Hobari horiek kasu hauetan aplikatuko dira:

1) **Ibilgailu elektriko**, bimodalen edo hibridoan (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa) titularrak izanez gero.

2) Eguzki-energia bidez ibiltzen diren ibilgailuen titularrak izanez gero.

